

- **Seguran** hondakinak **sailkatuta** biltzen dira, **atez ate** edota **edukiontzi** bidez.
- Etxebizitza bakoitzak **ontzi multzo** bat du hondakinak behar bezala bereizteko. **Ontziak doan eskuratu daitezke udaletxean.**


Atez ateko egutegia				
IGANDEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA
				
ontzi arinak	organikoa	papera eta kartoia	ontzi arinak	organikoa / errefusa

Hondakinak bereizi, dagokien ontzian sartu eta kalera atera egutegia errespetatuz 20:00ak eta 6:00ak bitartean. Ontzia hurrengo egunean jaso eta etxera eraman. **POLTSETAN EZIN DA EZER ATERA, pixoihalak izan ezik.**

- **PIXOIHALAK:** bi aukera daude pixoihalak ateratzeko.

1- Atez ate: plastikozko poltsa itxi batean atera daitezke, eta ontziarekin batera zintzilikatu, **igandetik ostegunera**.

2- Edukiontzia: **egunero** bota daitezke. Edukiontzia txartel bidez irekitzen da. **Eska ezazu udaletxean.**




- **ORGANIKOA:** bereizketa errazteko **10 litroko ontzia eta poltsa konpostagarriak** banatuko dira.

1- Atez ate: **20 litroko ontzi marroia** erabili eta atera ezazu kalera egutegiaren arabera.

2- Edukiontzia: **egunero** atera daiteke. Edukiontzia txartel bidez irekitzen da. **Eska ezazu udaletxean.**

3- Konposta egitea: informazio gehiago Sasieta Mankomunitatean.




- **Nola lortu POLTSA KONPOSTAGARRIAK:**

Poltsen makina **udaletxeko sarreran** dago. Edukiontziak irekitzen dituen **txartelak** 10 astean behin poltsa bilkari bat **DOAN** lortzeko balio du.



Hondakinik onena sortzen ez dena!

- Beste zenbait hondakin **edukiontzi bidez** biltzen dira:



Beira



Sukaldean erabilitako olioak



Arropa



Pilak



Kafe kapsulak

MINIGARBIGUNEA hondakin txikientzat:

Aparatu elektriko eta elektronikoak, informatika eta telekomunikazio gailuak, metala edo plastikoa ez diren ontziak, tinta eta toner kartutxoak, erradiografiak, bonbilak eta fluoreszenteak.

Sartzen ez dena garbigunera eraman.
Ez utzi hondakinik lurrean!



- Etxeko trasteak** (altzariak, etxetresna elektrikoak...) **hileko 2. eta 4. astearte gauean** atera behar dira. Utzi **beira** edukiontzien ondoan.



- OBRAKO HONDAKINAK**, zaborrak, paletak, txatarra, pneumatikoak, etab. **BETI GARBIGUNERA** eraman behar dira. **Beasaingo** Salvatore auzoan eta **Ordizian**, Oiangu bidean, daude. Informazio gehiago hemen: www.sasieta.eus

BEASAIN

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:00
15:00-17:30
 Larunbatean
9:00-13:00

SASIETA ZABORTEGIA
GARBIGUNEA

2 Km 2 Km

BEASAIN GI-632 ORMAIZTEGI

ORDIZIA

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:00
15:30-18:00
 Larunbatean
9:00-13:00

GARBIGUNEA

Su-Eskola

ORDIZIA BEASAIN

INFORMAZIO GEHIAGO

www.sasieta.eus



Zalantzaren bat baduzu, bi gidak kontsulta ditzakezu:

- Horian, zer sar daiteke?**
- Birziklatzea erraza da!**
Hondakinak zuzen bereizteko gida



SASIETA MANKOMUNITATEA: Tel. 943 16 15 55 • info@sasieta.eus
SEGURAKO UDALA: Tel. 943 80 10 06 • udala@segura.eus



العربية



Română



English



Français



SASIETA
MANKOMUNITATEA

www.sasieta.eus